

Gure taldea MOLL deitzen da eta talde honetako kideak Maria Rodriguez, Oier Uriguen, Lexuri Guarrotxena eta Laura Montero gara. Durangon dagoen Ibaizabal ikastolako zentroko ikasleak gara. Gaur egun Haur Hezkuntzako Goi Mailako Gradua ikasten ari gara. Gure prestakuntza haurren garapen integralean eta hezkuntza-ingurune aberasgarri eta bizigarri bat eskaintzea oinarritzen da.

Gure proiektua 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat musikoterapia zentro bat sortzean datza. Zentro horren helburua haurren garapenaren hainbat arlo hobetzea izango da, hala nola motrizitatea, TDHAren tratamendua eta hizkuntzarekin lotutako arazoak hobetzea, besteak beste. Musikoterapiaren bidez, haurren ongizatea eta hazkundea erraztuko duten tresna terapeutikoak eta hezitzaileak eskaintzea bilatzen dugu.